

AURKIBIDEA

1. KOKAPENA

K.1 | Euskalerra mailan03

K.2 | Eskualde mailan. UROLA KOSTA04

2. HISTORIA

H.1 | Udalaren historia05

3. ANALISIA

A.1 | Udalaren garapen historikoa06

A.1.1 | Eraikin ezanguratzuak09

A.2 | Ekipamenduak10

A.3 | Kultura11

A.3.1 | Eraikin kulturalak12

A.4 | Mugikortasuna13

A.4.1 | Jende Fluxuak

A.5 | Eremu mailan. Interbentzioaren aurretiko egoera15

4. LEGEDIA

L.1 | Udal araudiak. HIRIGINTZA19

L.1.1 | Eremuaren hirigintza proposamenak26

5. PROIEKTUAREN OINARRI TEORIKOA

OT.1 | Zer? Zergaitik?29

OT.2 | Formaren sorrera30

OT.3 | Programa + Distribuzio eskema31




6. PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN ARKITEKTONIKOA

7. ATALTEKNIKOAREN LABURPENA

ZARAUZ GIPUZKOAN

Zarautz Gipuzkoako kostaldearen erdialdean kokatzen den udalerria da. Urola kosta eskualdeko hiriburua izateaz gai inguruko hiribildu komertzial eta turistikoenetakoa da. Urola kostako eskualdea 11 udalerrik osatzen dute: Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia.

Urola kostak bi motore ekonomiko desberdin ditu, aldi berean lan egiten dutenak eskualdeari osotasuna emanez; enpresa sendoak eta turismoa. Honi esker, 2016ean Gipuzkoan biztanleko errenta handiena duen eskualdeetako bat izan da, eta biztanleriak %9,1 hazkundea izan du.



Euskara Herri mailan egindako analisiaren arabera, Zarautz udalaren kokapen estrategikoa azpimarratzen da; Naiz eta, EAEko hiriburu erdigunean ez aurkitu, Donostiarekiko daukan hurbiltasunagatik eta errepide sareko ardatz nagusienetarikoa bat igarotzen zaiolako, A-8a.

Ibilgailu publiko sareari deritzenez, Euskotreneko tren sarean geltokia eta Pesa eta Lurraldebus konpainiek EAEko hiriburuetara dituzten sareetan geralekua dauka eta Zarautz-Bilbo sarearen kasuan irteera puntu ere bada.

Donostiarekin daukan hurbiltasunagatik hainbat zerbitzu eta ekipamendu tertziarioentzat erakargarri bilakatu izan da azken bi hamarkadetan aldi berean enpresa gazteentzat sormen puntu ezin hobea izanik.

Urola Kosta Gipuzkoako iparraldeko erdialdean dagoen eskualdea da, kostaldekoa. Eskualdean itsasoratzen den Urola ibaiak ematen dio izena. Udalerri hauek hartzen ditu bere baitan:


Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia (antzina Azpeitia, Azkoitia, Beizama, Errezil eta Zestoa ere bai, baina gaur egun Urola Erdia osatzen dute).

Urola Kostak 108,31 km²ko ditu (Gipuzkoaren %16,5), eta 42.526 biztanle zituen guztira 2010ean (Gipuzkoaren % 5,7 baino ez). Udalerriak jendetsuena Zarautz da, 22.652 biztanlerekin, eta bertan kokatzen da Urola Kostako Udal Elkarteak. Barrualdeko bi udalerriak jende gutxikoak izanik, kostaldekoen artean Zumaia nabarmen daiteke Zarautzen ondotik, 9.327 biztanlerekin, eta itsasertzean daude bilduta eskualde honetako biztanle gehienak.


Eskualdeko ekialdea, batez ere Orio eta Zarautz, oso lotuta daude Donostialdeko eskualdearekin, bere eremu funtzionalaren parte baitira. Bestalde, Orio historikoki Beterriko parte izan da, eta beraz, Donostialdeko parte.

Hizkuntzari dagokionez, Urola Kosta da elebidun gehiago duen eskualdea. Euskara nagusia da herri txikietan eta herri handietan (Zarautz).

LKS Urola Kosta eskualdearen paisaiagintza Katalogoa burutu eta 8. bienalean aurkeztu zen. Katalogo horren oinarritan ondorengoak ageri dira.



UROLA KOSTA UDAL BANAKETA



Babes bereziko eremuak




Paisaiaren izaera estetikoa



Begiraleki eta ikuspegiak



Paisaiaren Balore Ekologikoak



1237an hiribidu titulua eman bazitzaion ere, historialariek Fernando III.a Gaztelakoak sinatutako dokumentuan zehazten dela foruaren berrespena adierazi ohi dute. Horrenbestez, badakigu data horren aurretik bazegoela zarautzar herriguneren bat, Zarautz etxe boteretsua bazegoen bezalaxe, haren ikurritzei jarraiki: Zarautz baino lehenago Zarautz. Elizaren inguruan berriki egindako indusketek hala zela berretsi dute.




Mendeetan, hiribiduko biztanleen bizimodua nekazaritza eta arrantza izan zituen oinarri. XIV. mendearen amaieran, Getariarekin batasun ofiziala itundu zuten Zarautzek; baina laburra izan zen, eta bien arteko liskar

franko izan zituzten, agian getariarrek ere antzeko interesak defendatzen zituztelako.

Kondairaren arabera, gaur egun jada inongo aztarnarik gelditzen ez den Zarauzko Ontzioletan Joan Sebastian Elkano getariar itsasgizonaren agindupean lehenbizikoz munduari itzulgurua eman zion Victoria ontzia eraiki omen zen.

Bitxia bada ere, Gaztelako errege erregeinek Zarautzi foruak harrapatutako balea bakoitzaren zati baten truke eman zituzten. Okel zati hori ateratzeko, balea luzetara ebakitzen zuten, burutik isatsera. Zarautzarrek erakutsi zuten baleak harrapatzen oso trebeak zirela. Arrantzale kofradiaren aktetan ageri da 55 balea harrapatu zituztela 1636tik 1801era bitartean. Halaber, alegiazko kontakizunetan azaltzen dute arpoiaz zauritutako beste balea batzuen ihesa. Horiaz, ez da harrizkoa antzinako udal armariaren hirugarren kuartelean balea agertzea.



Gai horren ildotik, Zarautz Ganboa etxeko ateburuan (Azara kaleko 4. zenbakian) artistaren batek xaloki zizelatu zuen balearen harrapaketa eszena, ziur asko etxe horretan jaiotako seme baten lanbidearen gorazarretan. Ganboa kapitain balea harrapatzaile hark,

gainera, abizena eman zion Kanadako Labrador penintsulako golko bati. Zarauz-ko arrantzaleek ez zuten babes porturik, eta hondartzan bertan lehorreratzten zituzten ontziak.

XVI. mendea arte arrantzan jardun zuten zarautzarrek, bereziki balearen harrapaketa. Animalia hori Bizkaiko golkotik desagertutakoan, bestelako zereginetan murgildu ziren biztanleak, hala nola nekazaritza, ehungintza eta altzari eta itsasontzien eraikuntza.

1859an arrantzale profesionalen eta kirol arrantzaleen ontzi txikiak portu txiki bat eraiki zuten. Horretarako, senaia zabalaren mendebaldeko Alle puntaren babes naturalaz baliatu ziren.



Baina XIX. mendearen bigarren erdialdean erabakita zeuden, eta Zarautzen metamorfosi gertatu zen: arrantzale izatek burgesia handiarentzat opor leku eta bainu hiri izatera igaro zen. 1865ean eta 1866an Elisabet II.a Espainiakoak eta Fabiola Belgikakoa

erreginek Zarautzen egin zituen udaldiak erabakigarriak izan ziren. Erregina Narros jauregian egon zen, eta han jakin zuen koroa galdu zuela. Erreginak gorteko jendea eta nobleak erakarri zituen, eta Zarauz-ko ibar ederrean, Santa Barbaratik Talaimendira, jauregitxoak egiteari ekin zioten. Halere, Zarautzek ez zuen inoiz galdu haren nortasun euskaldun sendoa. Monumentu natural nagusia, berebiziko jendetzak erakartzen dituena, ia 3 km ko hondartza zabala da, mendebaldeko Alle puntatik hasi eta ekialdeko Mollarriko uharte txikietaraino.

Bestelakoan, 1895ean herrira burdinbidea iritsi zen. XX. mendearen hasieran, 1908an, Mollarriko mineral kargalekua zabaldu zuten, Asteasuko Andazarrateko meategietatik materiala garraiatzeko. Mendeko lehenengo erdialde hartan eraiki zuten herriko azoka (1903), Zinema frontoia (1924) eta Modelo zinema aretoa (1948).

1950 eta 60ko hamarkadetan lanera espainiar etorkinen kopuru esanguratsua iritsi zen herrira eta auzo berriak sortu ziren.



1986an Eusko Alkartasuna alderdi politikoaren sorrera herri honekin oso lotuta egon zen, baita 1993an PSE eta Euskadiko Ezkerra alderdien arteko batuketa ere.

TURISMOA

Elisabet II.a Espainiakoa opor-hiri aukeratu zuenetik (Narros jauregia), XIX. mendea, turismoak izugarriko bultzada izan zuen Zarautzen.

Elisabet II.aren ondoren aristokrata eta goi-mailako jende ugari Zarautzen udaldia igarotzera bertaratu ziren: Narrosko markesa, Maria Kristina Austriakoa, Alfons XIII.a Espainiakoa, Balduino I.a Belgikakoa, Albako dukesa edota Pascual Madoz.[3] XX. mendearen hasieran Zarautzen udaldia igarotzen zuten aristokraten kopurua eskasa zen, baina hauek ahoz-ahokoaren bitartez beste batzuk erakarri zituzten. Modu honetan nobl eta jauntxo nabarmenak Zarautz bisitatzen hasi ziren, bertan udalerrira nahiz lekua erakargarria egiten zituzten hainbat ezaugarri topatuz: paisaia eta kostaldearen edertasuna, garai hartan Espainiako gortearen udalekua zen Donostia hiriarekiko hurbiltasuna, edota Europa eta Frantziako jende dotorea eta aristokraziaren udalekua zen Biarritz hiriarekiko hurbiltasuna, etab.



Garai hartan Zarautza zetozen aristokratik Gran Hotel delakoan ostatu hartu (gaur egun desagertua) eta euren etxaldeak eraikitzen hasi ziren, Zarauzko Real Golf Kluba ireki eta euren udako oporrak iragateko behar zituzten jai eta aisialdirako instalakuntzak ere gauzatu zituzten.

Aristokrata hauek senide ugari familiaz osatutako etxaldeak ziren eta gainera hauei sarri etortzen ziren gonbidatu eta beste familietako adiskideen zerbitzu lanak gehitu behar zaizkie. Zarautzen hirurogeita hamar eta laurogeita hamar pertsona zeuden etxalderen bat ere bazen.

Gaur egun, Donostia eta Bilborekin batera, Euskadiko turismo-gunerik garrantzitsuenak da. 3 kilometro luze dituen Zarauzko hondartza Euskadiko luzeena da eta udaldian turista eta surfari ugari erakartzen ditu. Bertan, irailean, Munduko Surf Txapelketaren zirkuiturako proba puntuagarria den Rip Curl Pro Zarautz delakoa ospatzen da.





Zarauz Gipuzkoako kostaldearen erdialdeko udalerri bat da, Urola Kosta eskualdeko hiriburua. Turismoa eta merkataritza ditu ekonomia jarduera nagusiak. Uda garaian Zarauzko hondartza egunero beteta egon ohi da, 2,8 kilometro luze edukiz, Euskal Autonomia Erkidegoko luzeena, eta Euskal Herriko bigarren luzeena Hendaiaiko Ondarraitz hondartzaren ondoren.

Probintziako bosgarren udalerririk populatuena da, Donostia, Irun, Errenteria eta Eibarren ostean: 22.915 biztanle zituen 2015. urtean. Euskal Herriko kostako udalerri honek udan populazio hori hirukoiztu egiten du, eta 60.000 biztanle ere izaten ditu. Donostia hiriburutik 15 kilometro mendebaldera dago.

Euskarazko forma Zarauz da, herriaren izen ofizial bakarra. Haren deklinabideari dagokionez, -tz bukaerako toponimoen gisan egiten da: Zarauzko (NONGO kasua), Zarauztik (NONDIK). Forma horietan Zarauz- da erroa. Gaztelaniazko izena horixe bera izaki, XX. mendeko azken laurdenean, purista batzuek Zarauz-ko udaltzaingoa eta antzeko forma okerrak erabili nahi izan zituzten.





Zarautz-en jatorria ez da ongi ezagutzen, Gipuzkoako beste kostako herri askorena bezala. Jakinean gaude historiaurreko asentamendu batzuk eta arte rupestreko arrastoak daudela Zarautz eta inguruetan, baina ez daukagu datu zehatzak. Bestetik, erromatarren aztarnak ere badira Zarautz eta Getaria artean, lehen urbanizazio elementuak agerian utziz, erromatar garaian sortuak.

JATORRI HISTORIKOAK (S.XIII-XIV)

Kostaldeko herri gehienek jatorri historikoak oso antzekoak dira eta askotan haien geografik mugatzen ditu hauek. Hala ere jakina da Zarautz, 1237. Urtean fundatu zela ofizialki, izan ere Fernando II erregeak Burgos-en Carta- Puebla bat sinatu zuen.

Nahiz eta herririk zaharrenetakoa izan, ez du herri- harresirik, ereiaroko defentsa elementu karakteristiko bat bezala. Herria irekia zegoen bere muga naturalei. Herriaren hasierako morfologian, begi-bistakoa da bere forma geometriko errektangeluarra, non bi ardatzez banandua dagoen; batetik luzetarako ardatza Mendebalde- Ekialdea markatuz (Kale nagusia) eta bestetik zeharkakoa, Iparretik- Hegoaldera (Ipar kalea). Honek alde zahar konpaktu bat osatzen du, partzelazio gotiko batekin, non etxebizitzak aurkitzen ziren, askotan behe oinean gremioen tailerrekin edota patioetan ukuilu txikiekin. Carta Pueblak bestetik, hesi moduko bat zegoela esaten du, agian egurrezkoa, behin- behineko babes erreminta moduan.

S. XV- XVI

Garai honetan, XIII- an eraikitako hesia bota zen, eta herriaren azalera hedapen garbi bat jasan zuen. Eraikin berriak egin ziren, aurretik zegoen morfologia jarraituz eta kale berriak sortuz, kale nagusia luzatzeaz gain. Eraikin hau harrizkoa egingo da nagusiki, suteak ekiditeko intentzioz, eta lehen Dorretxeak agertuko dira Zarautzen. Dorre luzea eta Parrokiako kanpandorra izanen dira behinik behin hauetako garrantzitsuenak.

DORRETXEAK

Harresi bat ez zegoenez, herriko klase altuenetako jendeak beraien etxebizitza seguruagoa izan zedin, harrizko eraikinak egitea erabaki zuen, izaera defentsiboarekin. Honela sortu zen garai honetako eraikin tipologia berria: Dorretxea. Zarautzen XIV, XV eta XVI mendeetan sortu ziren. Normalean oina karratua eta pisu anitzeko eraikinak ziren, harlanduzko horma sendoekin.

BEHIN BETIKO ASENTAMENTUA (S. XVII- XVIII)

Bi mende hauetan, Zarautz-eko Villa guztiz finkatua geratzen da. Pixkanaka, hasierako arrantza eta nekazaritzaz gain, jarduera industrialagoak gehitzen zaizkio, burdingintza eta ontziolak adibidez. Mende hauen barkuen eraikuntza nabariki haziko da, Chilicu Ontziola izanik hauetatik ospetsuen.

Oraindik Villa bere ardatz nagusietan hedatzen doa, batez ere luzetarakoa, ekialdetik mendebalderantz. Orokorrean, Zarautzko alde zaharra osorik finkatuz doa, kale nagusiak luzatu eta arrabalekin batera elkartuz, eta tartean zeuden errota bateratuz. Frantziskotarren eta Santa Clarako konbentuak ere osatzen dira XVII mendean, lehen proiektu publikoekin batera. Honela frontoia eta lehen eskolak eraikitzen dira ekialdean, herriari amaiera emanez, partzelazio gotikoko baratzekin batera. Partzelazio honek

morfologia errektangeluarra izango du, bere ardatz nagusia Ipar- Hegoaldekoa delarik.

ZABALGUNEAK (ENSANCHES) S. XIX

XIX Mendean industrializazio prozesu garrantzitsu bat gertatzen da, herrien morfologia eragin nabari batekin izan ere garai honetan gertatuko dira zabalgune handienak. Donostiako Cortazar- ena edota Bilbokoa besteak beste.

1800- 1850

Zarautzek XIX medera arte aldaketa oso gutxi izan zituen eta bere populazioa ez zen asko igo. Oraindik paisaia urbanoa naturarekin oso ongi integratua dago, aldaketa nabaririk gabe. Mende hasieran alde zaharrak, bere ezaugarri mediebalekin, berdin jarraitzen du Santa Barbara mendiaren magalean, eta honen ekialdera baratzak zabaltzen dira, natura eta gizakiaren presentziaren oreka perfektu bat sortuz. Garai honetan eraikiko dira halere lehen azpiegitura nagusiak, Portua edota Orio eta Getariarekin bat egiteko bide-sarea.

1850-1900

Mendearen bigarren erdi honetan industriak eta turismoak indar handia dute, eta Zarautzek aldaketa garrantzitsuak jasango ditu. Zarautzko Plan Orokorra egingo da, non hiri- morfologia definituko den etorkizuneko eraikuntzak bideratzeko. Turismoa Zarautzko iturri ekonomiko garrantzitsua bilakatuko da garai honetan. Korte Isabelinoak etorriko da uda pasatzera bertara, eta honek noblezia eta jende aberatsa erakarriko du aldi berean. Honela, hondartzaren lehen lerroan jauregitxoak eraikiko dira, herria iparraldean mendebalderantz hedatuz. Honek herriko biztanleria bitan banatuko du, alde batetik urte osoko populazioa alde zaharrean finkatuz, eta bestetik behin behineko biztanleak hondartzako lehen lerroan.

Azpiegitura berriak eraikiko dira baita ere, trenbidea eta malekoia izanik garrantzitsuenak. Trenbidearen etorrera garrantzitsua izango da herriaren morfologian, izan ere, etorkizunerako muga garrantzitsua sortuko du, herria bitan banatuz. Bestetik N- 634- a ere sortzen da ondoko herriak konektatuz, eta ipar- hego konexioa zertu bat mugatuz.

XX. MENDEA

Mende honetan jarduera turistiko eta industrialek indar handiagoa hartuko dute, pixkanaka nekazalgintza eta abeltzaintzaren lekua hartuz. Plan orokorrak idazten dira baita ere, gero eta azkarragoa den hazkunde bideratzeko, nahiz eta hau ez izan guztiz konpaktua eta jarraitua.

Ramon Cortazar- ek 30. Hamarkada arte bere lekua izango du Zarautzen bilakaeran, merkata, eskola, Foruen enparantza, edota Zarauzko Urbanizatze Plana eginez 1917an. Hemen agertzen dira lehen aldiz kota eta lerrokadurak.

Turismoarekin erlazionatutako azpiegiturak ere sortzen doaz, besteak beste Golf-eko zelaiak eta Modelo Zinema.

1945ean Mugurza- ren Plan Orokorra idazten da, herriaren lehen arazo garrantzitsuenei soluzioa bilatu nahian. Besterik beste berdeguneak eta eraikin historikoak mantendu, malekoia egin, edota gehiegizko dentsitateak konpontzen saiatzen da, nahiz eta kritikatu izan.

1945 urteko Plana

1950- 1980


Urte hauetan, nukleo urbanoa ekialderantz zabalduko da, lorategi hiri moduko hazkunde mota batekin. Honek dentsitate baxua eta berdegune eta zuhaitzak izango ditu, pasaia eta herriaren arteko oreka perfektu bat bilatuz.

1965tik aurrera Zarautzek aldaketa nabariak jasango ditu bere egitura urbanoan, gehienbat, inguruko nekazal herrietako eta beste probintzietako migrazioa dela eta. Hori dela eta beste hiru hirigintza- plan idatziko dira 1953, 1963 eta 1973 urteetan. Honela, 1980 arte trama urbanoa desagertu egingo da pixka bat. Salbide, Zelai- Ondo, Azken Portu edota itsas Mendiko etxebizitza poligonoak eraikitzean.


Bestetik hondartzako lehen lerroan zeuden jauregien ordez, luxuzko urbanizazioak eraikiko dira bertan, eskema urbano nahasi bat utziaz, blokeen batura moduan. Garai honetan Gantxegiren Vista- Alegreko etxebizitza dorrea izango da Zarautz-ek izango duen eraikin erreferenteena.

1980- tik Aurrera

Aurreko urteetan desegindako sare urbanoa konpontzen saiatuko dira Angel de la Hoz eta Alberto Zabala arkitektoak. Kohesio bat bilatuz, Salbide eta Aritzbataldeko gunek berriak batuko zaizkio Zarautzi, oraingoan hirigintza araudi sendoago batekin, gauzak ongi eginaz. Hala ere, Zarautz herri sakabanatu eta orden gabe geratutakoa dela esan genezake, ideia garbi bat gabe eraikia. Desordenatua dirudi, eta periferikoa, Alde zahar interesgarri baten inguruan sortua.



1915. urtea



1954. urtea



2016. urtea



1946



1983



1997



2004




2015



- LEGENDA E: 1/2500
- Narros Jauregia-XVI. mendea [1]
 - Santa Maria la Real Parroquia-XV.mendea [2]
 - Zarautz Dorrea-XV. mendea [3]
 - San Marina Ermita-XX. mendea [4]
 - Makazaga Dorretxea-XV-XVI. mendeak [5]
 - Modelo Zinema-XX. mendea [6]
 - Sorreluzeena Dorretxea-XIX. mendea[7]
 - Torre-Luzea-XV. mendea [8]
 - Azoka-XX. mendea[9]
 - Udaletxea, portu etxea-XVIII. mendea [10]
 - Dotorekua jauregia-XVI. mendea [11]
 - Lehenbiziko eskola publikoa-XX. mendea [12]
 - San Juan Bautista Frantziskotar komentua XVII. mendea [13]
 - Artzai onaren konbetua-XX. mendea [14]
 - Santa Klara Konbetua-XVII. mendea [15]
 - Tren Geltokia-XIX. mendea [16]
 - Maria Pilar Villa-XIX. mendea [17]
 - Herriko Barra-V-IV. mendea [18] (Aztarnategia)



KANTAURI ITSASOA



LEGENDA

E: 1/7500

- Kirol-erabilera
- Irakaskuntza-erabilera
- Erijiro-erabilera
- Soziokulturala
- Osasun eta asistentzia-erabilera
- Hotel-erabilera
- Merkataritza-erabilera
- Hiri eta administrazio zerbitzuak
- Generikoa / Genérico
- Jolas, aisia eta ikuskizuneko erabilera
- Erregaiak banatzeko hornitegiak
- Espazio libre eta berdeguneak
- Kanpina
- Aparkaleku autonomoak
- Haur jolasak

EGUTEGI KULTURALA

MARTXOA

- Garagardo Azoka
- Euskal Tuning Show

APIRILA

- Ur-Motorren Lehiaketa Mundiala (IFWA Freeride world tour)

EKAINA

- Pagoeta lehen domeka
- Zarautzeko Triatloi internazionala

UZTAILA

- Haterofiliako lehiaketa internazionala (ZKE Haterofilia)
- Kale-antzerkia

ABUZTUA

- Birjinaren udal jaia 14, 15 eta 16a
- XXXa Zarauzko regata, San Miguel Ligarako puntuatzen dutenak 18 eta 19
- Jazzeko seminario internazionala (2000-2010)
- Artisautza azoka
- Liburu eta disko azoka

IRAILA

- Zarautz Pro Surf Munduko txapelketa
- Eusko astea 1-9ra
- Eusko eguna 9an

URRIA

- Txakolinaren eguna
- Surfeko eta Bodyboard-eko Euskal Txapelketa

ABENDUA

- Gitarrenen jaialdi internazionala
- Gabonetako umeentzako parkea



Kultura herriak mugiarazten du eta honek, era berean, kultura sustatzen du. Biak doaz loturik. Zarauzko hiribilduak beti izan du kulturaren inguruan jarrera aktiboa, eraikin estankoez eskaini digutenaz gain, kalean zehar ere ikusi izan ditugu hainbat eta hainbat ekintza honen inguruan. Hala ere, azken urteotako egoera dela eta, kultura Zarautzen, umezurtz geratu da.

Arazoa zeharo larria bilakatu da azken bi urte hauetan alde ekonomikoak min handia egin baitu. Badira, oraindik ere, zutik eta aktiboki dirauten kulturaren inguruko eraikinak eta badira aurrera jarraitzen dituzten zenbait jaialdi et ikuskizun ere.

Hala ere, Kultura indartu nahian burutu da SALBERDIN EREMUA SOZIO-KULTURALA.

Ondoren jaialdi eta txapelketa garrantzitsu eta ipakto ekonomiko handiena sorrarazten dituztenak deskribatuko dira:

GARAGARDO AZOKA



2000. urtean hasi zen, Zarauzko rugby taldeak sortutako ekimena izan zen, behar ekonomiko batez bultzatua. Taldea larri zebilen eta beste udalerrri batzuetan izandako harrera ona kontutan izanik, Zarautzen ere probatzea pentsatu zen.

Arrazoi nagusia ekonomikoa izan arren, bazen hiribilduan rugby taldea esagutzera ematearen nahia ere.

Aste Santuan burutzen da baia abenduan asten dira prestajuntzak.

Parteartea irekia da, bai jokalaria zen jakalari ohiak naiz guraso edo gainontzeko, eta laguntzeko prest dagoen herritarrak ere.

Azokak garagardo internazionalak probatzeko aukera ematen du eta aldi berean jaki Aleman tradizionalak ere.

Munoa begiralekuan leku hartzen du eta urtero milaka bisitarik erakartzen ditu.



JAZZEKO SEMINARIOA



2000 urteko usteileko 24tik 30ra, Zarautzeko lokalitatean, bere baitan jazzeko seminarioa hartu zuen Gasteiz eta Donostia beteteranoekin batera.

!0 urtez segidan burutu zen, izugarriko jendetza erakarrit eta komunitate autonomo desberdinetatik musiko ugari erakarrit. Jazzeko pertsona garrantzitsu asko Kenny Barron piano jolea bezala edo Gary Barth eta Jess Davis saxofoi joleak bezalakoak.

Zarauzko kultura zinegotziak "Efe"-ri esan zion beharrezkoa zela murrizketa ekonomikoak burutzea. Ondorioz 2010ean aldizkari eta egunkariak informatu zuen seminarioaren esekidurari buruz.

SURFEKO TXAPELKETA MUNDIALA (ZARAUTZ PRO SURF)

Arazo ekonomikoak zirela eta 2012tik 2016ra ez zen txapelketa Zarautzen burutu.

Zarautzen ematearen arrazoietako bat, mundialki hondartzarik honenetakoa kontsideratua dagoelako, surfa praktikatzeko. Mundialki famatuak diren olatuak sortarazten dira. Ez da beraz arritzekoa, Gipuzkoan surfa gehien praktikatzen den hiribildua izatea.

Txapelketa honek erakartzen dituen babesle garrantzitsu eta jendetza ugaria dela eta, hainbat kultura ekintza, tailer eta kurtxoak ezkaizten dira: surfeko kurtxoak, yogako kurtxoak, skateko txapelketak, BMX-eko erakusketak, bizita gastronomikoak, etb. Zarautzarrek antolatua, udalari gehienezko probetza atera nahian eta herria mapa mundialean jarriz.



PHOTOMUSEUM



Aitzinan La Salle ikastetxea zena, orain museo bihurtua. Eraikin estankoa da, erabilera bakarria emango zaiona urteetan zehar argazkilaritzaren inguruan. Bi ataletan banatzen da eraikina; lehen aipatutako argazki eta argazkilaritzari buruzko erakusketa alde batetik, eta lehen ikastetxea zenak zituen gelak aprobetxatuz, bertan emango diren kurtsuak bestetik.

TORRE LUZEA



Hiribilduaren alde zaharrean kokatua, herriaren bihotzean dugu dorretxea, monumentu bezala katalogatua. Honek, noizbehinka bertara sartzeko aukera ematen digu, bertan zenbait artelanen erakusketak izaten baitira. Azken honek, aurrekoak baina zertxobait malgutasun gehiago duela esan genezake, erakusketa itinerarioak direlako. Halere, eraikin pribatua izanik, esku-hartze gutxi du udalak.

SANZ-ENEA LIBURUTEGIA



Bere izenari omen eginez, liburutegia du bere baitan. Honez gain, erakusketak ere eskaintzen dizkigu, eta tartean- tartean haurrentzako (publiko gutxiko, beti ere), txotxongilo eta antzezlan txikiak ere izaten dira malgutasun ertaineko eraikina delarik, programa finkoa duela esan genezake.

SANTA MARIA LA REAL PARROKIA



Eliza honek badu atxikitako dorretxo bat, Zarautz Dorrea, eta bertan, parrokiaren inguruan orain gutxi aurkitu diren erromatar aztarnen erakusketa aurkitzen da. Gune hau ere erabilera bakarrekoa da, lehen aipatutako erakusketaz gain ez delako beste ezer eskaintzen.

VILLA MUNDA



Garai bateko jauregitxo dugu non XIX eta XX. Mendean udarako bizileku bezala erabiltzen zuten jauntxo eta Espainiako erregeek. Eraikin berrerrabilgia eta estankoa hau ere, funtzio

bakarria, herriko bandak egiten dituen saioez gain, ez baita beste ezertarako erabiltzen.

ZARAUTZEKO MERKATUA



Aurreko eraikinekin alderatuz, askoz malguagoa dela esan genezake. Merkatua izateaz gain, hirigintza aldetik badu bere puntua, kale nagusiko eta udaletxearen aurreko enparantzaren arteko lotura izateaz gain, pasoko gune bihurtu delako. Horrez gain, erakusketak izaten dira goiko pisua. Orain urte batzuk berritu aurretik, lehendabiziko

solairuan dendak eta postuak zeuden, baina kokapen ez egokia izateagatik, berritzerakoan, ez zen postu edo dendatorik proiektatu. Beraz, gaur egun, erakusketa ezberdinak ikus ditzakegu urtean zehar, beti ere, gehientsuenak, naturarekin zerikusia dutelarik. Gainera, noizbehinka, Zarautzko musika bandak bertan ematen ditu kontzertuak.

EBRO-ETXEA



Bertan Zarautzko argazkilaritza, Urola kostako mankomunitatea eta artezalea biltzen dira. Eraikin honen instalazioak edonoren eskura daude. Honez gain, badira hiribilduan zehar sakabanatzen diren zenbait lokal kulturaren arlo ezberdinei erantzuna ematen dietenak, musika taldeen entsegurako lokalak, edota Zarautzko koruak bere saioak egiteko. Halere, ez dute eraikin estankoa moduan jokatzeko, baizik eta beharrei erantzunaz, momentuan momentuko egoera puntualei ematen diete irtenbidea.


LIZARDI ARETOA


Bi mehelin artean kokatzen zen alde zaharreko eraikin bateko behe solairuan kokatzen zen. Eraikin berak batzoki edo txokoa ere bazuen; eta bertatik antzezle, artista eta kulturaren inguruan mugitu izan diren pertsonai ugari pasa izan dira gaur arte. Egia da aretoa nahiko txikia eta iluna zela, denboraren poderioz, mantenu on bat izan ez eta zaharkitzen joan zen. Lizardi aretoaren egun onak aspaldi pasa dira urte eta serto bat gehiago da eraitsi zutena.

MODELO ZINEMA



Eraikin pribatua da eta hiribilduaren alde zaharrean kokatzen da, plazaren ondoan, sekulako kokapen bikaina izanik. Orain urtebete arte, gutxi gora-behera, martxan zebilen astero-astero lehedabizi, eta aldian-aldian azken partean, filmak proiektatuz. Inguruko herri eta hirietan zentru komertzialak zabaldu zirenean sekulako beherakada sumatu zuen. Horri, mantenu eskasa gehitzen bazaio, zinemaren heriotza oso hurbil ikus zitekeen. Eta halaxe geratu da. Eraikina bera zinema izateko proiektatua izan zen, beraz malgutasun gutxikoa da eta gaur egun erabilera publiko kulturalekin egin nahi bada, aurrekontu eskas batekin, aldaketa txikiak bakarrik egin daitezke, obratan sartu gabe.





LEGENDA

Bidegorrien sarea

Udal sarea

- Dagoena
- Proposatutako
- Gipuzkoako sarea; kostako ibilbidea
- Oinezkoentzako sarea



KULTUR ERAIKINEN SAREA

Eraikin kulturalak erakartzen duten jende fluxua eta beraien arteko lotura sarea.

Salberdin Auzoa, sarearen hertzean kokatzen da eta proiektuan garatutako programa kulturala kontutan izanik Kultur eraikinen sarearen zabaltzea eta handitzea dakar.



EKIPAMENDU ERAIKIN SAREA

Ekipamendu eremu eta eraikin desberdinak sortarazten duten jende pilaketa eta berain artean sotzen den erlazio sarea.

Salberdin Auzoa, sarearen erdialdean kokatzen da, Auzoaren editik igarotzen da.

Proiektuaren programaren aukera dela eta ekipamendu sarean nukleo berri bat sortarazten da sare honi gehitzen zaio.

Kasu honetan sarea bitan banatua geratzen da trenbidearen ondorioz, trenbide azpiko pasoen bidez bakarrik komunikatuak.

SALBERDIN AUZOA

Izaera industrialeko eremu degradatu bat da zeina Santa Clara konbentuarekin bizikide delarik. Trenbidea dela eta, erdigune urbanoan kokatua izanda ere hiribilduaren iparraldearekin mostua dago egun. Hala ere, plan orokorrek aurreikusten hari den trenbidearen lurperapena eta lurzorua birkalifikazioaren (erabilera industrialeko lurzorutik egoitza erabilera lurzorura) medio auzoa berriro baloretan jarri nahi da.

Auzoaren kokaleku hona eta tren geltokiaren bidezko inguruko herriekiko konekzio onaz baliatuz, paregabeko kokalekua litzateke ekipamendu publiko batentzako.

